OIARTZUNGO I. PLAN FEMINSTA



2022KO EKAINA

PROIEKTUAREN LIDERGOA

OIARTZUNGO UDALA

DIRUZ LAGUNDUA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

PROIEKTUAREN DINAMIZAZIO TEKNIKOA

FARAPI KOOP.

AURKIBIDEA

1. DIAGNOSTIKOTIK PLAN FEMINISTARA 4
2. PLAN FEMINISTAREN OINARRIZKO INFORMAZIOA 6
   2.1. Abiapuntua 6
   2.2. Printzipio gidariak 6
   2.3. Berdintasun Planaren prozedura 7
   2.4. Udalaren eskumen eta funtzioak 7
   2.5. Kudeaketa sistema 8
   2.6. Planaren jarraipena eta ebaluaketa 9
3. GOBERNU ONA 10
4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA 23
5. EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO 32
6 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK 39
7. JARRAIPENERAKO FITXAK 48

1. DIAGNOSTIKOTIK PLAN FEMINISTARA

Oiartzungo Udalak herriko emakume eta gizonen aukera berdintasuna sustatzeko erabakia hartu du eta horretarako, 2018an diagnostiko lan bat eta hemendik eratorritako ekintzen plan feminista bat burutu dira. 2008an emakume eta gizonen egoera ezagutzeko diagnostiko bat burutu zen, baina gero ez zen honi begirako esku-hartzerik aplikatu. Orain, diagnostiko hori eguneratu da eta bere datuetan oinarrituz, Oiartzungo I. Plan Feminista osatu da, esku-hartze hori ezartzeko. Oiartzungo Udalak ere, lehen bai lehen esku-hartze bat ezartzeko beharra lehenetsi du.

Herriko emakume eta gizonen egoera ezagutzeko, 2018an burutu den diagnostiko lan berrian, herriko zenbait eragile eta pertsonek hartu dute parte. Hauen hautaketan 2008ko diagnostikoan hainbeste landu ez ziren alorretako eragileak edo estrategikotzat hartu direnak lehenetsi dira. Diagnostiko honetan ateratako ondorioetatik abiatuta eraiki da plana, izan ere, bere erabilgarritasuna bermatzeko, ezinbestekoa da bertan jasotako errealitatearen argazkiko ezaugarriak kontuan hartzea.

Oiartzungo I. Plan Feminista oinarrizko tresna da herriko emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko, eta bere baitako programa, helburu eta ekintzak ere horretara bideratuta daude. Plan Feminista honek 6 urteko iraupena izango du, 2019tik 2024ra (biak barne).

Azpimarratu behar da plana egiteko ondorengo bi irizpide nagusiak jarraitu direla:

- **Otsailaren 18ko 4/2005 Berdintasun Legea:** lege honen helburua emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea da, ohiko rolek sexuaren arabera ezartzen dituzten mugekin hautsiz. Horretarako:

  > *(…) emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan herri-aginteen jarduna zuzendu behar duten printzipio orokorrak ezartzen ditu legeak, eta zenbait neurri ere arautzen ditu. Neurrion xedea da emakumeek eta gizonek bizitzaren arlo guztietan aukera eta tratu berdinak izan ditzaten bultzatzea eta bermatzea[1], (…).*

  Legeak bi estrategia azpimarratzen ditu. Batetik, genero ikuspegia txertatzeari buruzko neurriak biltzen ditu, honen bidez posible baita emakume eta gizonek gizartean betetzen dituzten rol edo postuak ezberdinak eta desorekatuak direla ohartzea. Neurri hauek desoreka edo ezberdintasun horiek neutralizatzera bideratuak daude. Bestetik, ekintza positiboen inguruko neurriak leudeke, zeinak emakumeek abiapuntuandituzten desabantailak orekatzeko estrategia bat osatuko luketen. Estrategia edo neurri multzo hau, aukera berdintasuna bere baitan oreka hori sortzeko gai ez denean baliatuko litzateke.

- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana:** Planak bi zutabe nagusi ditu: batetik, emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egiteko, nahitaezkoa da legediaren eta politika publikoen bidezko “Gobernu on” bat bermatzea. Lehen atalean horri begirako neurriak zehazten dira, beraz. Bestetik, hiru ardatz ezberdin bereizten dira, lehentasunez landu beharreko 3 gai nagusi jasotzen dituztenak. “Gobernu

[1] Iturria: https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2005/03/0500982a.pdf

onaren” zein 3 ardatz hauen baitan programa edo lan-ildo nagusi batzuk markatzen dira:

		ARDATZAK		
	Gobernu ona	**1. Emakumeen ahalduntzea**	**2. Ekonomiak eta gizarte antolakuntza eraldatzea**	**3. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**
PROGRAMAK	Konpromiso politikoa	Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea	Berdintasuna gizartea eta ekonomia eraldatzeko beharrezko balioa dela aitortzea	Sentsibilizazioa eta prebentzioa
	Berdintasunerako trebakuntza	Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea	Emakumeen autonomia ekonomikoa	Detekzioa, arreta eta berroneratzea
	Genero ikuspegia lan prozeduretan		Zaintza-lanen ekonomia feminista	Erakundeen arteko koordinazioa
	Koordinazioa eta elkarlana			
	Parte-hartzea eta eragina			

Oiartzungo I. Plan Feministan, egitura hau jarraitu da, programa batzuk terminologia aldetik apur bat moldatu badira ere.

2. PLAN FEMINISTAREN OINARRIZKO INFORMAZIOA

2.1. Abiapuntua

Planek ekintza konkretuak biltzen dituzten beren baitan, nolabait esateko, epe eta leku jakin batean gauzatu beharreko plangintza edo lan egitarau bat lirateke. Tresna gisara ulertu behar dira, zeinak feminismoaren eta berdintasunaren aldeko lana sistematizatzea ahalbidetzen duten.

Oro har, herritar denei zuzentzen zaie, emakume zein gizonei, eta Udaleko arlo zein gizarteko eragile guztiei. Izan ere, esparru guztietatik sustatu liteke feminismoaren eta berdintasunaren aldeko lana.

2.2. Printzipio gidariak

Plan honek **errealista** izan nahi du, eta hargatik, aurrez egindako diagnostiko lanean jasotako Oiartzungo egoeran oinarritzen diren helburu eta ekintzak barne hartzen ditu.

Horrez gain, **herritar guztien inplikazioa** bilatzeari begirako ekintzez osatutako plana da. Izan ere, berdintasun politikek genero ezberdintasunak ezabatzea dute helburu eta ondorioz, ezin dute baztertzaileak izan: emakume zein gizonak inplikatzea behar dute. Gizonen inplikazioa beharrezkoa da:

- Erantzunkidetasuna bultzatzeko
- Maskulinitate eredu tradizionalek islatzen dituzten genero arteko harreman eta egoera desorekatuak gainditu eta zuzentzeko

Aniztasunetik eraiki den plana ere bada: diagnostikoan jasotako Oiartzungo emakumeen egoerak eta ezaugarriak anitzak dira, eta beraz, aniztasun hori kontuan izan behar da ekintza ezberdinak planteatzerako orduan. Izan ere, sexuaz gain badira beste aldagai batzuk ere emakumeok zeharkatzen gaituztenak: adina, jatorria, maila ekonomikoa… Planak aldagai hauen araberako **Oiartzungo emakumeen errealitate anitzetara moldatzeko helburua** izandu.

Bestetik, **udal esparru ezberdinetako zerbitzu eta baliabideak egonkortzeko** eta optimizatzeko helburua izan du. Plan honetan, proposamen zein ekintza berriak txertatu badira ere, batik bat, lehendik dauden lan arlo, zerbitzu eta errekurtsoetan genero ikuspegia sistematikoki txertatzea lehenetsi da. Hau, berdintasunaren aldeko esku-hartzea abiatzearen lehentasunezko edo oinarrizko urrats gisara ikusi da.

Azkenik, **plan ebaluagarria da**. Ezinbestekoa da jakitea, plan bat amaitzean, zer nolako eragin eta oihartzuna izan duen, zeintzuk izan diren emaitza onak eman dituzten alderdiak eta zeintzuk bete ezin izan direnak. Alderdi arrakastatsu eta ahulenen identifikazio hau lagungarria izango zaigu etorkizunean beste plan bat egiteko bidean.

2.3. Berdintasun Planaren prozedura

Oiartzungo I. Plan Feministak bi iturri nagusi ditu: batetik, Oiartzungo Emakume eta Gizonen Berdintasun Diagnostikoan jasotako emaitzak eta bestetik, Oiartzungo Feminismo Teknikariarekin elkarlanean bildutako hausnarketa eta proposamenak. Diagnostikoa (edo hobe esanda, 2008an burutu zen diagnostikoaren eguneraketa) 2018 urtean zehar burutu da fase ezberdinetan: Oiartzungo datu bilketa (Oiartzungo Udala eta beste erakunde publikoetatik ateratako datu kuantitatiboen bidez), landa lana (4 sakoneko elkarrizketa egin dira udaleko ordezkariei eta herriko eragileei), jasotako informazioaren analisi eta azterketa, eta txostenaren erredakzioa.

Bestetik, Oiartzungo Feminismo Teknikariarekin batean elkarlana koordinatzeko saio ezberdinak burutu dira. Planaren prozedura Feminismo Teknikaria eta Farapi Koo. Elkartearen elkarlan honen bidez egitea erabaki da, herrian burutu den lehen plana eta lehen esku hartzerako tresna izanik, oinarrizkoa eta batik bat administrazioaren errealitatera egokitu eta hau eraldatzera bideratutakoa izatea bilatzen delako. Aldaketak udal barneko egituraadministratiboetan ematea dela lehen urratsa erabaki da, esparru honen beharrezkoeraldaketa lehenetsiz. Lehentasuna hori izanik, plana eraikitzeko elkarlaneko prozedura hau eraginkorragotzat eman da.

2.4. Udalaren eskumen eta funtzioak

Plan honek Legeak finkatutako betebeharrei erantzuten die. Emakume eta gizonen Berdintasunaren aldeko 4/2005 legeak berdintasunaren alorrean administrazio-maila bakoitzak bete beharreko zereginak zehazki definitzen ditu, eta horrez gain, herri botere guztiak behartzen ditu benetako berdintasuna lortzeko baldintzak ezarri eta oztopoak kentzera, horretarako beharrezkoak diren politika eta ekintzak sustatuz.

4/2005 Legeak honako zereginak esleitzen dizkio Toki Administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta Foru-Aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeen eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonek bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei

buruz, bat eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarrizko gizarte eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu sozio-komunitarioak ezartzea, beren izaera dela eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundean xedeek edo eginkizunek toki eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakiokeen beste edozein eginkizun betetzea.

2.5. Kudeaketa sistema

Plan Feminista behar bezala abiatzeko eta haren jarraipen eta ebaluaketa egokia egiteko, kudeaketa egitura hauek erabiliko dira:

- **Feminismo Arloa**
    - **Parte-hartzaileak**: Berdintasun teknikaria eta beste zinegotzi edo teknikari laguntzaile batzuk.
    - **Funtzioak:**
        - Berdintasun Planaren jarraipen eta garapena bermatzea.
        - Planean zehazten diren ekintzak bultzatzea eta koordinatzea.
        - Inplikatutako eragile guztiak koordinatzea.
        - Planean zehaztutako helburu eta programen ebaluazioa burutzea
        - Plana ezagutzera ematea eta komunikazio lanak egitea.

- **Berdintasun Batzordea**
    - **Parte hartzaileak**: Dagoen egitura mantendu eta indartu, elkarteetako kideak, udal arduradunak, herriko beste eragileak edo oro har, feminismoa sustatzeko interesa duten herritarrak.
    - **Funtzioak:**
        - Plan Feministaren inguruan aholku eta proposamenak ematea
        - Planaren exekuzioan laguntzea
        - Planaren helburu eta neurrien betetze-mailaren jarraipen eta balorazioa egitea
        - Ahulguneak identifikatu eta neurri zuzentzaileak proposatzea

- **Sailen Arteko Batzordea**
    - **Parte hartzaileak:** Oiartzungo Udaleko sail bakoitzeko arduradun bat
    - **Funtzioak:**
        - Sail bakoitzean garatuko diren programa eta ekintzak adostea.
        - Plan Feminista betetzeari dagokion sailen arteko koordinazio eta elkarlan esparruak zehaztea.
        - Sail bakoitzak burututako ekintzen betetze-maila ebaluatzea eta Feminismo teknikariari honen berri ematea.

2.6. Planaren jarraipena eta ebaluaketa

Oiartzungo Plan Feminista urtero garatuko da, Programa operatiboetan finkatuz udalaren arlo bakoitzak urte horretarako burutuko dituen helburu, programa eta ekintzak. Programa hau **Feminismo Arloak** prestatuko du, **Berdintasun Batzordearen** laguntzarekin. Bi arlo hauen arteko elkarlana ezinbestekoa da; izan ere, Berdintasun Batzordea da Plana parte-hartze prozesu aktibo baten bitartez burutzea bermatzen duena.

Programa Operatiboa errealista izan dadin ezinbestekoa da Udaleko Sail desberdinekin adostasunetara heltzea, eta sail bakoitzak Plana burutzeko hartuko dituen konpromisoak zehaztea. Horregatik, Programa Operatiboa **Sailen Arteko Batzordean** kontrastatuko da, eta sailen arteko koordinazio-eredua zehaztuko da. Sail bakoitzak urte bakoitzean burutuko dituen ekintzak *Sailaren ekintza Planean* jasoko da. Ekintza bakoitza betetzean *Ekintzen jarraipen fitxetan* zehaztuko da (Txosten honetako azken orrietan daude bi fitxak), eta ekintza amaitzean, Feminismo arlora bidaliko dira.

Feminismo arloak *Ekintzen Jarraipen fitxa* guztiak jasoko ditu eta hauen betetze mailak aztertuz, Planean zehazten diren estrategia eta helburuak ebaluatuko ditu. Era honetan, Planaren jarraipenaren ikuspegi orokorragoa izango du. Lan hau errazteko *Programen ebaluazioa* eta *Helburuen ebaluazioa* deituriko fitxak atxikitzen dira txosten honen amaieran. Urtean zehar jasotako datuekin azken ebaluaketa egingo da, Planak ezarritako helburuak eta programak ze punturaino bete diren zehazteko. Berdintasun Batzordearekin elkarlanean, hurrengo urteko Plan Operatiboa zehaztuko da, hutsuneak bete, moldaketak egin eta proposamen berriak txertatuz.

3. GOBERNU ONA

Oiartzungo udalean emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko pausuak emateko, beharrezkoa da aukera berdintasunerako politikak udaleko arlo guztietatik zeharkakotasunez bultzatzea. “Gobernu Onaren” atala da ikuspegi honen atzean kokatzen den teoria eta hurrengo esanahia du: Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea, neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika, maila eta etapaguztietan sar dezaten genero berdintasun ikuspegia (Europako Kontseilua, 1998).

Ondorioz, atal hau izan da plan honetan gehien landu edo lehenetsi dena, aurrerago aipatu bezala, berdintasunaren aldeko eraldaketak lehenengo udal barnean ematearen beharra ikusi delako. Oiartzungo udaleko errealitatera egokituta, plan honek “Gobernu Onaren” atalean hurrengo eduki hauek proposatzen ditu, Emakundek aurkeztutako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean oinarrituta:

0. Oiartzungo I.go Plan Feminista Udaleko jardun eta programazioan txertatzea
1. Herri berdinzale eta feminista baterako urratsak emateko konpromisoa hartu eta horretara bideratutako politikak garatu
2. Berdintasun Planaren jarraipenerako koordinazioa
3. Oiartzungo I. Plan Feminista ezagutzera ematea
4. Udaleko sail ezberdinetako eta udaletik luzatzen diren zerbitzuetako berdintasunarekiko formazio beharrak identifikatu eta asetzeko formazio plana diseinatu
5. Genero ikuspegia lan-prozedura guztietan txertatuko duen udal eredu bateranzko urratsak eman
6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea
7. Komunikazioan berdintasuna txertatzea
8. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako irizpideak sartzea
9. Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana handitzea
10. Udal politiketan eta herri mailan sexu/generoagatik orekatua den partaidetza bat bultzatu
11. Udaleko emakumeen lan-baldintzen gaineko arreta bultzatu eta sistematizatu

0.Oiartzungo I.go Plan Feminista Udaleko jardun eta programazioan txertatzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-0.1.	Plana maila politikoan adostu eta onartzea.	Alkatetza						Adoste prozesuan partaide diren emakume eta gizon kopurua. Pertsona hauek ordezkatzen dituzten talde politiko kopurua. Adoste akta. Planaren onarpena jasotzen duen Osoko Bilkuraren agiria .

1. Herri berdinzale eta feminista baterako urratsak emateko konpromisoa hartu eta horretara bideratutako politikak garatzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-1.1.	Udalaren barnean, berdintasun eta politika feministei lekua eman eta sail propio gisa eratu.	Alkatetza						Feminismo Saila sortu izana, bere batzorde, aurrekontua eta egitura propioekin.
G-1.2.	Feminismo arloko politikak garatzeko, arloko aurrekontua hurrengo legegintzaldian gutxienez %10a igo.	Alkatetza						Feminismo arloko aurrekontua urtero %10 igo dela frogatzen duten euskarriak
G-1.3.	Udaleko enplegatu publiko guztiak feminismo gaietan trebatzeko saioak egin kultur artekotasuna eta aniztasun ikuspegitik	Idazkaritza						Feminismo arloko formazio saioen kopurua Parte hartu duten enplegu publikoko emakumezko eta gizonezko langileen kopurua Formazio saio hauen edukiak eta bertan parte hartu dutenen balorazioa

2. Berdintasun Planaren jarraipenerako koordinazioa								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-2.1.	I.go Planaren jarraipen eta ebaluaketaz arduratuko den Berdintasuna Batzordea sortu eta martxan jarri.	Alkatetza						Batzordearen eratze akta
G-2.2.	Feminismo teknikariaren iradokizunak jaso eta baliatu.	Sail guztiak						Udaleko Sail guztietan feminismo teknikariarengandik jaso diren iradokizunen zerrenda.
								Iradokizun hauetatik baliatu diren iradokizunen kopurua eta nola baliatu diren azalpena.
G-2.3.	Udal sail bakoitzeko arduradunekin elkarlanean, I.go Plana oinarri hartuta, urteko ekintzen plangintza prestatu.	Feminismoa						Plangintza prestatzeko egindako bilera/saio kopurua
								Saio hauetan parte hartutako sail kopurua
								Ekintzen plangintza bera, aurrera eraman diren ekintzen kopurua eta edukia, eta balorazioa
G-2.4.	Berdintasun Batzordearen dinamizazioa.	Berdintasun Zinegotzia						Berdintasun Batzordea bildutako saio kopurua, adostutako maiztasun kopuruarekiko alderaketan
								Saio bakoitzean parte hartutako eragileak eta kopuruak
G.2.5.	Berdintasun Kontseilu baten beharra dagoen ala ez aztertu herriko eragileekin.	Feminismoa						Hausnarketa txostena

3. Oiartzungo I. Plan Feminista ezagutzera ematea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-3.1.	Oiartzungo I. Plan Feministaren komunikazioa egin	Komunikazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea						Eginiko Komunikazio jarduerak
G-3.2.	Aldiro, I. Plan feministako jardueren berri eman herritar, langile eta zinegotziei	Komunikazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea						I. Plan feministaren jardueren berri emateko prestatutako jarraipen sistema (moldagarria)
								I. Plan Feministaren jardueren berri emandako ekimen kopurua

4. Udaleko sail ezberdinetako eta udaletik luzatzen diren zerbitzuetako berdintasunarekiko formazio beharrak identifikatu eta asetzeko formazio plana diseinatzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-4.1.	Generoa eta berdintasunaren esparruan dauden Sailetako prestakuntza beharrak identifikatu eta feminismo teknikariari jakinaraztea. Honen ardura Planaren jarraipen eta ebaluaketaz arduratuko den taldeak ere izango du.	Sail guztiak						Sail bakoitzeko prestakuntza beharren identifikazio lana
								Sail bakoitzaren prestakuntza beharren zerrenda
G-4.2.	Feminismo teknikariak proposatu edo antolatutako prestakuntzetan parte hartu.	Sail guztiak						Feminismo teknikariak proposatutako prestakuntza saioen zerrenda, sail bakoitzerako parte hartutakoen kopurua
								Sail bakoitzetik, prestakuntza saio hauetan parte hartu dutenen kopurua eta non hartu duten parte
								Egindako balorazioa

Kodea	Ekintzak	Arduraduna	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G-4.3.	Beste erakundeek ematen duten aholkularitza eta formakuntza zerbitzuez baliatu.	Sail guztiak						Sail bakoitzetik baliatutako aholkularitza eta formakuntza zerbitzu kopurua, eta zertarako baliatu diren
G-4.4.	Feminismo arloko enplegatu publikoen etenganbeko trebakuntza bermatu genero gaian eta berdintasun politiketan eguneratua egoteko.	Idazkaritza						Feminismo arloko langileek jasotako trebakuntza kopurua, maiztasuna, edukia eta balorazioa
G-4.5.	Udal hautetsien parte hartzea sustatu erakunde ezberdinek antolatutako prestakuntza ezberdinetan.	Alkatetza						Udal hautetsiek parte hartzeko egokiak diren prestakuntza ezberdinen zerrenda Zerrenda honetatik, udal hautetsiek parte hartu duten prestakuntza kopurua eta edukia Parte hartutako hautetsi emakumezko zein gizonezkoen kopurua, non hartu duten parte eta egindako balorazioa
G-4.6.	Udal enplegatu publikoei hizkuntza eta iruditegiez sexisten inguruko formazioa eskaini.	Idazkaritza						Udal langileek jasotako trebakuntza kopurua Trebakuntza hauetan parte hartutako langileen kopurua sexuaren arabera banatuta, eta egindako balorazioa

5. Genero ikuspegia lan-prozedura guztietan txertatuko duen udal eredu bateranzko urratsak ematea.								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-5.1.	Udaleko sailek jasotzen dituzten datuak sexuaren arabera banatuta bildu. Horretarako Udalean erabiltzen diren aplikazio informatiko, datu base eta bestelako sistemak berrikustea sexu aldagaia jasotzea eta tratatzea ahalbidetzen dutela bermatzeko.	Idazkaritza						Datu desagregatuak jaso eta sistematizatzen dituzten Udal formulario, aplikazio informatiko, datu base eta bestelako sistema kopurua Sistema hauetan sexu aldagaia jasotzea ahalbidetzeko egindako egokitze-lan kopurua Aukera hau ahalbidetzen jarraitzen dutela bermatzeko, jarraipen sistema bat sortu eta ezartzea Udal datu estatistikoak sexuagatik desagregatuta
G-5.2	Sail arteko koordinaziorako mahai politikoa martxan jarri	Alkatetza						Udaleko zinegotzien arteko koordinazio egitura bildutako saio kopurua, adostutako maiztasunarekiko alderaketan Bertan parte hartutako emakume eta gizonen kopuruak
G-5.3.	Sail arteko koordinazio mahai teknikoa martxan jarri.	Feminismoa zinegotzia						Udaleko Sailen arteko koordinazio egitura bildutako saio kopurua, adostutako maiztasunarekiko alderaketan Bertan parte hartutako emakume eta gizonen kopuruak
G-5.4.	Hirigintza sailean egiten diren hiri antolamenduko prozeduretarako genero irizpideak sortu eta sistematizatu.	Hirigintza, obrak eta zerbitzuak						Genero ikuspegia txertatzeko identifikatutako eta aplikatu beharreko irizpideen zerrenda Identifikatutako irizpide hauek txertatu diren prozedura/lanketa kopurua Irizpide hauek txertatzen jarraitzen direla bermatzeko jarraipen sistema sortu eta ezarri

Kodea	Ekintzak	Arduraduna	2022	2023	2024	2025	Aurrekontua	Adierazleak
G-5.5.	Partaidetza prozesuetan genero ikuspegia bermatua egoteko neurriak hartu.	Komunikazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea						Sail ezberdinetatik garatutako partaidetza prozesuetako partaideen kopuruak sexuagatik orekatuak izateko ezarritako neurrien zerrenda
								Neurri hauek bete diren partaidetza prozesu kopurua
								Neurri hauek betetzen jarraitzen direla bermatzeko jarraipen sistema sortu eta ezarri
G-5.6.	Genero eragin txostenak egin dagokionean	Sail guztiak						Egindako genero eragin txostenak
								Egiaztapen txostena eta bertan jasotako ondorioak
								Ondorioetatik eratorritako neurri zuzentzaileak ezartzeko proposamen zerrenda
G-5.7.	Genero ikuspegia txertatzea herritarrei zuzendutako programa guztietan	Sail guztiak						Genero ikuspegia programa guztietan txertatzeko proposamen zerrenda
								Proposamen hauek txertatuta antolatu den programa kopurua
								Proposamen hauek txertatzen jarraitzen direla bermatzeko jarraipen sistema sortu eta ezarri

6. Enplegu publikora sartzeko eta bertan gora egiteko hautaketa prozesuetan berdintasunari buruzko edukiak sartzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-6.1.	Enplegu publikoko deialdietan hizkuntza eta edukien erabilpen ez sexista egiten dela bermatu	Idazkaritza						Hizkuntza ez sexista erabiliz edo irizpide hauek kontuan izanaz, enplegu publikotik egin den deialdi kopurua
G-6.2.	Enplegu publikoko lanpostuak lortzeko eta lanpostuz igotzeko hautaketa prozesuetan genero ikuspegia txertatu (gaitegian, froga, oinarrien eta azterketen hizkuntza, prozeduran, komunikazioan e.a.)	Idazkaritza						Hau bermatzeko sortutako proposamen edo neurri zerrenda eta onartutako proposamen kopurua Genero ikuspegia txertatua duten enplegu publikoko deialdi kopurua
G-6.3.	Genero eragin txostena egin enplegu publikoa lortzeko eta lanpostuz igotzeko hautaketa-prozesuetan.	Idazkaritza						Genero eragin txostena barne hartzen duten enplegu publikoko deialdi kopurua
G-6.4.	Udal sailean segregazio horizontala eta bertikala aztertu eta bere kasuan, murrizteko neurri bereziak hartu.	Idazkaritza						Martxan jarritako neurriak eta hauen emaitza balorazio txostena

7. Komunikazioan irudi eta hizkuntza sexista saihestea eta komunikazio inklusibo eta irisgarria sustatzea herritarrentzat ikuspegi intersekzionaletik								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-7.1.	Hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzeko trebakuntza eman.	Feminismoa						Antolatutako trebakuntza ordu kopurua Formazioa jaso duten langile kopurua
G-7.2.	Hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren erabilera egokia azaltzen duten gidak zabaldu eskura izateko.	Feminismoa						Hizkuntza eta iruditegi ez sexista erabiltzeko zabaldutako gida kopurua
G-7.3.	"*Nombra en Red*" aplikazio informatikoa ezarri ordenagailu guztietan.	Informatika						"*Nombra en Red*" aplikazio informatikoa ezarritako Udaleko ordenagailu kopurua "*Nombra en Red*" aplikazio informatikoa erabiltzen duten Udaleko langile kopurua
G-7.4.	Aholkularitza zerbitzua ematea.	Feminismoa						Egindako kontsulta eta aholkularitza lanak Egindako aholkularitza saioetatik ondorioztatu eta ezarritako neurri zuzentzaile kopurua
G-7.5.	Hizkuntza eta irudi ez-sexista erabili udal dokumentazio guztian	Sail guztiak						Aldizkako dokumentazio azterketen emaitzak egin eta neurri zuzentzaileak proposatu.
G-7.6.	Komunikazio politikan hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabili eta bereziki rol sozialak eta genero estereotipoak eraldatzaileak sustatu	Komunikazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea						Urteko komunikazio memoriaren azterketa
G-7.7	Udal araudi eta informazioa Irakurketa Erreza sistema erabiliaz argitaratzen hasi (ordenantzak, dirulaguntza deialdiak, jai egitaraua…)	Komunikazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea						Euskarrien dokumentazio ale bana
G-7.8.	Udal komunikazio euskarri ezberdinetan, ekitaldi eta aurkezpenetan, komunikazio inklusiboa txertatzen hasi, itsu eta gormutuentzat irisgarria	Komunikazioa, gardentasuna eta herritarren parte hartzea						Euskarri ezberdinen ale bana

8. Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako irizpideak sartzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-8.1.	Kontratazio plegu administratibo eta teknikoetan berdintasunerako klausulak sartzea.	Idazkaritza						Berdintasun klausulak sartuak dituzten plegu administratibo kopurua Berdintasun klausulak sartuak dituzten plegu tekniko kopurua
G-8.2.	Genero Klausulak prestatu, adostu eta txertatzeko koordinazio lan taldea sortu eta ezarpen prozesuaren jarraipen bateratua egin	Idazkaritza						Egindako bilera kopurua
G-8.3.	Elkarteentzat genero ikuspegia txertatua izango duen diru laguntzen ordenantza orokorra ezarri.	Idazkaritza						Genero ikuspegia txertatua duen diru-laguntzen ordenantza orokorra sortu izatea Genero ikuspegia txertatua duen diru-laguntzen plan estrategikoa
G-8.4.	Diru laguntzen plan estrategikoan berdintasunerako helburuak sartu	Alkatetza						Plan estrategikoan sartutako berdintasunerako helburuak
G-8.5.	Diru-laguntzen oinarri zehatzetan genero ikuspegia txertatu.	Sail guztiak						Genero ikuspegia txertatua duen diru-laguntzen oinarri zehatz kopurua
G-8.6.	Diru laguntzetako berdintasun irizpideen betetze mailaren jarraipena egin.	Feminismoa						Deialdietara aurkeztutako proiektuen datuak desagregatuta jaso eta aztertu Berdintasun klausulen betetze maila eta eraginkortasuna ebaluatu

9. Berdintasunerako herriaz gaindiko koordinazioa eta elkarlana handitzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-9.1.	*Gipuzkoako Foru Aldunditik* bultzatutako Lurraldeko Berdintasun Teknikarien Sarearen barruan parte hartu.	Feminismoa						Parte hartutako saio kopurua Egindako balorazioa
G-9.2.	Oarsoaldeko Berdintasun Mahaian parte hartu eta eskualdeko berdintasun politika koordinatuak sustatu.	Feminismoa						Parte hartutako saio kopurua Sustatutako eskualdeko berdintasun politika kopurua
G-9.3.	Emakundetik jasotako deialdietan parte hartu.	Feminismoa						Emakundetik jasotako eta parte hartutako deialdi kopurua eta balorazioa
G-9.4.	"Berdinsarea"-ko kide egiteko eskaera egin eta parte hartu bere lantalde teknikoetan.	Feminismoa						"Berdinsareako" kide egiteko eskaera Berdinsareako lan-talde teknikoetan parte hartutako saio kopurua eta balorazioa

10. Udal politiketan eta herri mailan sexu/generoagatik orekatua den partaidetza bat bultzatzea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-10.1.	Emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua izatea organo, batzorde eta epaimahai ezberdinetan. Posible ez den kasuetan, berdintasun gaietan aditua den norbaiten partaidetza bermatu.	Sail guztiak						Udaleko organo, batzorde eta epaimahai guztietako partaideen kopuruak sexuarena arabera banatuta Irizpide hauek betetzen diren eta betetzen ez diren organo, batzorde eta epaimahaien zerrenda
G-10.2.	Oiartzungo emakume hautetsien partaidetza sustatzea GFAk, Emakundek eta beste entitate batzuk bultzatutako ekimenetan, erantzukizun politikoak norbere gain hartzeari lotutako arazoak detektatzeko eta laguntza zein truke-sareak sortzeko .	Alkatetza						Halako espazioetara parte hartzera deitu edo bultzatutako emakume hautetsien kopurua Halako espazioetan parte hartu duten emakume hautetsien kopurua
G-10.3.	Emakumeak parte hartze soziopolitikoan ahalduntzeko ekintzak antolatu.	Feminismoa						Ekintza hauek zeintzuk izango diren adosteko egindako saio kopurua Saio hauetan parte hartutako eragile kopurua Proposatutako ekintzen zerrenda eta edukia Praktikan jarritako ekintzen kopurua eta balorazioa
G-10.4.	Jaien inguruko diagnostiko-txostena eta esku-hartzeko plangintza 2017 ezartzea	Kultura						Planaren ebaluazio txostena eta ondorioak
G-10.5.	Udalaren Museo eta Ondare politiketan genero ikuspegia txertatzeko ekimenak ezarri (Arizmendi Enea, Arditurri, Labaderoa…)	Kultura						Ezarritako neurriak
G-10.6.	Udal kultur ekipamendu berria genero ikuspegitik kudeatu	Kultura						Parte hartze prozesuan hartutako neurriak Parte hartzeko prozesuko datu desagregatuak Ekipamenduaren kudeaketa feministarako hartutako neurriak Ekipamenduko programaziorako hartutako irizpide feministak

11. Udaleko emakumeen lan-baldintzen gaineko arreta bultzatu eta sistematizatu								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
G-11.3.	Udal enplegatu publikoentzako prebentzio eta osasun arretako zerbitzuan genero ikuspegia txertatu.	Idazkaritza						Mediku azterketa egiten duen enpresaren lizitazioan sartutako berdintasun klausulak
								Kontratutako enpresaren proposamenak genero ikuspegia txertatua bermatzeko proposatzen dituen neurriak
								Genero ikuspegia osasun arretan sartu izanak eragindako aldaketa espezifikoen zerrenda
G-11.4.	Urteko osasun errebisioari arreta ginekologikoa gehitzea aztertu.	Idazkaritza						Praktikan jarri diren eta arreta ginekologikoa txertatua zuten osasun arreta hauetan parte hartu duten udal langileen kopurua

4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

Ahalduntzeak “boterea eskuratzea” esan nahi du, eta beraz, prozesu bat litzateke non emakumeek beren posizio eta presentzia indartzen duten bizitzako esparru ezberdinetan, indibidualki zein kolektiboki. Marcela Lagarde y de los Ríos antropologoaren hitzetan, emakume bakoitzak besteentzat aritzeari uzten dionean ematen da: besteen, historiaren, politikaren eta kulturaren objektu izatetik protagonista izatera pasatzen denean, bere bizitzaren subjektu bihurtuz.

Berdintasunerako VII. Planak argi uzten du ahalduntze honen beharra ezinbestekoa dela gizartean dauden desorekak apurtzeko eta NBE-ri egiten dio erreferentzia: NBE Emakumeak erakundeak esaten duenez, alderdi horietako bat ere ezin da hobetu emakumeak ahaldundu gabe, hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana).

Ardatz honen barruan bi programa nagusi planteatzen ditu Emakunderen txostenak:

- **Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea:**

    - Batetik, emakumeen autonomia, autoestimua eta autozaintza garatzen lagundu nahi da programa honen bidez, giza garapen iraunkorrean emakumeek eta feminismoak duten rola aitortuz, emakumeengan genero- kontzientzia sortuz eta emakumeen ongizate indibiduala eta osasuna hobetuz, Emakunderen VII. Planaren arabera.

    - Bestetik, emakumeak gizarte-kategoria bat direnez beren eskubideekin, eta biztanleriaren erdia osatzen dutenez, baliabide eta zerbitzuen hobekuntza zein eraldaketa sustatzen dira, eskuragarriak izan daitezen eta emakume guztien beharrei erantzun diezaieten, beti ere euren aniztasuna aintzat hartuta.

- **Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea:** Programa honen bidez, eremu publikoetatik berdintasuna sustatzea bultzatzen da, eremu horietan emakumeen partaidetza sustatuz. Partaidetza hau, berdintasunaren lorpenean benetako eragina izango duen benetako parte hartze bat izatea bilatzen da emakumeek presentzia hutsa baino zerbait gehiago izan dezaten bizitza sozialean eta politikoan.

Programa hauen barruan helburu estrategiko batzuk zehazten ditu Emakunderen txostenak. Hauek oinarritzat hartuaz, Oiartzungo errealitatera egokitzen diren helburu batzuk zerrendatu dira hemen, ondoren helburu estrategiko horien baitako ekintza konkretuak txertatuz.


ARDATZA
I. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
PROGRAMA
1. Emakumeen ahalduntze pertsonalari eta kolektiboari laguntzea
2.Emakumeen ahalduntze sozialari eta politikoari laguntzea
HELBURU ESTRATEGIKOAK
1.1. Emakumeen ahalduntzea sustatuko duten espazio eta prozesuak sortu
1.2. Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea
1.3. Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan
1.4. Herri mailako baliabideak hobetzea, bereziki genero araberako desberdinkeria handienak sor ditzaketen horiek
2.1. Emakumeen parte hartze soziopolitikorako neurrietan sujetu feministaren aniztasuna kontuan hartuko duten politikak sustatzea
2.2. Herri mugimendutik emakumeen parte hartze soziopolitikorako eta sare feministen artikulaziorako mekanismoak sortzea
2.3. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan

EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA

1.1.	**Emakumeen ahalduntzea sustatuko duten espazio eta prozesuak sortzea**							
Kodea	**Ekintzak**	**Arduradunak**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
A-1.1.1.	Herriko eragile feministekin jabekuntza eskolaren beharraz eta diseinuaz hausnartu.	Feminismoa						Herriko eragile feministekin Emakume Etxe baten beharraz hausnartzeko egindako bilerakopurua
								Bilera hauetan parte hartutako kideen perfila etakopurua
								Bilera hauetan hausnartutako ideiak etaateratako ondorioen zerrenda
A-1.1.2	Feminismoari lotutako ekintzen urteko programazioaren barruan zehazten diren lehentasunen araberako gai bat ardatz hartuta, jardunaldiak antolatu urtero.	Feminismoa						Antolatutako jardunaldi kopurua eta edukiak
								Jardunaldi hauen antolaketan parte hartutakoenperfila eta kopuruak
								Jardunaldi hauetan parte hartutako emakume etagizonen kopuruak
A-1.1.3	Aisialdi ereduan neska gazteenak ahalduntzeko formazio eta tailerrak antolatu hainbat gairen inguruan.	Gazteria						Antolatutako tailer kopurua eta edukia
								Tailer hauetan parte hartu duten neska eta mutilen kopurua
A1.1.4	Oiartzungo emakumeen memoria historikoa berreskuratzeari begirako ekimen eta ikerketak sustatu	Kultura						Ikerketen dokumentazioa
A-1.1.5	Espazio publikoan Oiartzungo emakumeen memoria berreskuratzeko jarduerak bultzatu	Kultura						Jardueren memoriak

1.2. Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea								
Kodea	**Ekintzak**	**Arduraduna**	**2022**	**2023**	**2024**	**2025**	**Aurrekontua**	**Adierazleak**
A-1.2.1.	Gehien feminizatutako bizitzako eremuei duten balioa sozializatu etapublikoki aitortzea: zaintza lanak etaetxeko lanak.	Feminismoa						Gehien feminizatutako bizitzako eremuei balio soziala aitortzeko antolatutako ekitaldi kopuruak eta edukiak: kanpainak, hitzaldiak…
								Ekitaldi hauek herrian izandako harrera eta balorazioa
A-1.2.2.	Herriko emakume zaintzaileen lanaeta balioa ikustarazteko ekintzak formulatu: adibidez, etxez etxeko zerbitzuko langileei omenaldi edo eskertza bat egitea, esaterako, jaietako txupinazoa botatzeko aukera eskainiaz.	Kultura						Herriko emakume zaintzaileen lana balioan jartzeko antolatutako ekintzak(esaterako, txupina botatzea)
